

# Funtsezko bazkideak

Proiektua garatzeko zenbait bazkide beharrezkoak eta oso lagungarriak izango dira:

- **Google Play, Play Store eta Apple Store:** gure aplikazioa kontsumitzaileek deskargatu ahal izateko Google Play, Play Store eta Apple Storen egon behar da. Horrela, modu azkar eta erraz batean gure aplikazioa euki ahal izango dabe euren mobikorretan.
- **Dendarien elkarteak:** denda txikietara proiektu hau zabaldu ahal izateko ( Bilboko Alde Zaharreko Merkatarien Elkartea, Santutxuko Merkatarien Elkartea, Gorbea kalearen merkatarien elkarte, Aenkomer, Gipuzkoako Merkatarien Federazioa...)
- **Eusko Jaurlaritza:** Eusko Jaurlaritzako turismo, kontsumo eta ostalaritza departamentuak turismo, ostalaritza eta merkataritza sektorerako laguntza desbardinak eskaintzen dauz, izan be, merkataritza txikien digitalizaziorako hainbat programa daukaz. Laguntza mota horren barruan aurkitu dogu bat gure proiekturako oso aproposa dala uste doguna, merkataritza laguntzen barruan euskal txikizkako merkataritzaren ekipamentu personalaren azpisektoreari eusteko laguntzak deitua. Laguntza honek Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako merkataritza-establezimenduak eta uriko merkataritza-jardueragaz lotutako zerbitzuak modernizatzeko da. Horregaitik, oso ona da guretzat, gure idea dendak modernizatzeko oso baliagarria dalako.  
Laguntza mota honetaz gain, departamentu bardinean beste 3 laguntza apropos aurkitu doguz:
  - Enpresak sortzeko laguntza, laguntza indibidualizatua Bilbon edozein negozio mota sortu aurreko azterketa-prozesuan.
  - Seed Capital Bizkaia: Bizkaia Aurrera mikrokredituak Bermerik, komisinerik eta interesik bako mailegua, eta KOItik edo Elkargiren abaletik jasotako beste edozein finantzaketagaz bateragarria
  - Enpresa barritzaileak sortzeko programa, Itzuli beharrik bako dirulaguntza
- **Erabilizaileak izango diran dendak-kate handiak:**
  - Arropa kateak: Inditex, Mango, HM, Adolfo Dominguez, Cortefiel...
  - Kirol kateak: Forum, Decathlon, Deportes Navarra, Sprinter...
  - Supermerkatuak: Eroski, Mercadona, Lidl, Carrefour, BM
  - Gasolindegia: Repsol, Galp, Petronor...
  - Jatetxeak
  - Beste motatako dendak: Ikea, Leroy Merlin, Tiger...
- **Bankuak:** idea hau garatzeko beharrezkoa da finantziarioa, beraz, banku baten mailegu handi bat behar izango da. Horrexaz aparte, bankuakaz berba egin behar izango dogu gure ordainketa metodoa garatzeko.
- **Hornitzaileak:** wifia eta datuak baita elektrizitatea be.
- **Langile kualifikatuak eta inplikatuak**
- **App designer:** persona bat kontratauko dogu gure aplikazioa diseinatzeko. Modu honetan lortuko dogu aplikazioa itxura ona izatea baita praktikoa eta erabilteko erreza izatea be, arlo honetan aditua dan persona bat sortuko daualako gure idea azalduta.